


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



TOLOSA, GUARDIA ZIBILAK HARTUTA, 1916AN

1916ko azaroaren 27an, astelehena, Tolosako herria geldituta esnatu zen, greba baten ondorioz. Egun horretan, Gipuzkoako hiribildua militarki okupatu zuen Guardia Zibilak, grebalarieki-ko edozein manifestazio edo elkartasun ekintza erreprimitze-ko asmoz. Sindikatuek greba orokorrera deitu zuten, eta lan-tegi eta paper-fabrika gehienek bat egin zuten grebarekin. Langileek oinarritzko produktuen kostuaren igoeraren arabera-ko soldata-igoera eskatzen zuten. Aurreko egunean, 1.500 langile baino gehiago bildu ziren zezen-plazan, eta patronalak edozein soldata-igoera negoziatzeari uko egin ziola jakinarazi zuten sindikatueta-ko ordezkariak. Goiko argazkian, Guardia Zibila ikus daiteke, Boinas Elozegi lantegiaren sarreran, Santa Maria kalean. Beheko argazkian, Guardia Zibilaren kontrol bat ageri da, Tolosako sarreran, Gaztelatik datorren errepidean, Bentaunditik oso gertu. Argazkiaren atzealdean, San Esteban ermita ikus daiteke, fabrikak eraikitze-ko eraitsi aurretik.